

## dFERIA 2014KO KARTEL LEHIAKETA

### Oinarriak

- 1.- Partikularrek zein enpresek har dezakete parte.
- 2.- Nahi adina zirriborro aurkeztu ahal izango dira. Lanek argitaragabeak eta originalak izan beharko dute, edozein modalitate artistikotan eginak, argazkiak, marrazkiak eta abar.
- 3.- Kartel irabazleari **1.000 €** (zergak barne) emango zaizkio.
- 4.- Zirriborroak euskarri zurrunean eta **A3 formatu bertikalean edo horizontalean, edo euskarri informatikoan (JPG formatuan, 72 ppp bereizmenarekin eta 62 x 88 zm proportzioarekin)** aurkeztu ahal izango dira.
- 5.- Zirriborroak aurkezteko azken eguna: **2013ko urriaren 24a, 13:30ean.**
- 6.- *“Donostiako Udalean eta haren menpeko erakundeetan gizonak eta emakumeak berdinak izateko zeharreko ekintzak ezartzeko jarraibideetako”* 1.2. atalaren arabera, erabilitako irudiek generoen ordezkaritza orekaturako joera izan beharko dute, rol eta estereotipo tradizionalak bultzatu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu aukeraketari lotutako diferentzien tratamendu gutxiesgarria ekidinez.
- 7.- Hurrengo edizioko kartelaren gaiak “Mugak / Fronteras” izan behar du. Mugak da aurtengo dFERIAko edizioko gaia. Mugak zentzu zabalean: muga politikoak, artistikoak, matematikoak, psikologikoak eta fisikoak... Errealitate ezberdinen - edo agian hain ezberdinak ez diren- arteko mugarran jartzea. Iragaziak, oztopoak, eragozpenak, mugak, mugarriak, sentsazioak... Zeharkatu behar ez direnak edo agian, nahi eta nahiez, zeharkatu eta gaintu behar direnak.
- 8.- Elebiduna (euskara /gaztelania)
- 9.- Proposamenak ondoko helbidera bidali edo bertan entrega daitezke:

### Donostia Kultura

#### dFERIA

Erregina Erregente kalea 8, 3.a,  
Antzerki eta Dantza Unitatea. 20003

Donostia

Tel.: 943-483860 / Fax: 943-481969 / [dferia@donostia.org](mailto:dferia@donostia.org)

[donostiakultura.com](http://donostiakultura.com)

==Çcbof^  
bëëÉÓiá~-bëëÉÓÉáíÉ~-l-oÉiá~-oÉÓÉáíÉl-U  
OMMMP= =açâççëíá-Jp-â-pÉÁ-éíá•á  
íÉâ-HPO=VQP=QUP=USM= =ñ-ñ-HPO=VQP=QUN=VSV  
ÇÑÉéá-] Ççâççëíá-KçëÖ= =í'í'í' KÇÑÉéá-KÁÇã ==



Gutun-azal itxian eta izenburu edo goiburu berberarekin, zirriborroaren atzealdeari itsatsita, parte-hartzailea identifikatzeko datuak jarriko dira: egilea edo enpresa, telefono zenbakia, IFZ/IFK. Gutun-azalean “dFERIA 2014ko Kartel Lehiaketa” idatzi beharko da.

**Kartel irabazlea 2013ko azaroan emango da ezagutzera.**

Aukeratu ez dituzten zirriborroak **2014ko martxoaren 17etik apirilaren 4era** jaso ahal izango dituzte lehen adierazitako helbidean 09:00etatik 13:30era arte.

**Bestalde, egilearekin adostu ondoren, aukeratu ez dituzten zirriborroak Donostia Kulturaren beste programazio edo ekitaldiren baterako erabili ahal izango dira.**

10.- Karteletan honako hau idatzi beharko da:

**dFERIA 2014**  
**“Mugak / Fronteras”**  
Martxoa 10 - 13 Marzo  
Donostia - San Sebastián

*(Udalaren, Donostia Kulturaren eta Donostia 2016ren logoak eduki beharko ditu)\**

11.- Donostia Kulturak egokia iruditzen zaion erabilera emango dio aukeratutako irudiari, eta berari lotuta dagoen ekitaldiak nahi duen formatu eta euskarritan erreproduzitu eta erabili ahal izango du.

Donostia, 2013ko urriaren 4a

*(\*) Kasu guztietan kontuan izan behar da, aipaturiko inskripzioez gain, kartelak ekitaldiaren beste hainbat babesleren logotipoak eraman ditzakeela (Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, INAEM, Kutxa eta COFAE).*

**donostia**kultura.com

==Çcbof^  
bëëÓiá~bëëÓÉáíÉ~l-oÉiá~oÉÓÉáíÉl-U  
OMMMP= =açâççéiá-Jp-â-pÉÁ-éiá•á  
íÉâ-HPOQ=VQP=QUP=USM= =ñ-ñ--HPO=VQP=QUN=VSV  
ÇÑÉéá-] Ççâççéiá-KçéÖ= ì' ì' ì' KÇÑÉéá-KÁçã ==

